



BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroekiko harremanari dagokionean, harreman automatizatua izango da. Makina bat denez, zerbitzu automatizatuaz edo autozerbitzuaz ari gara hitz egiten. Herritarrek makina baten bidez bakarrik daude gurekin lotuak, eta honekin batera, txartela eta aplikazio baten bidez beteko duelako zerbitzua. Hau herritarrei dagokionean.

Plastikoa jasotzen duten enprekin aldiz, harreman zuzena izango litzake. Plastikoa eramaterako orduan, beraiekin harreman zuzen bat izango genuke. Kasu honetan, pertsona bat joango litzateke plastikoa eramatera plastikoa birziklatzen duten enpresa horietara, eta bertan zuzeneko harremana edukiko lukete bezeroak eta plastikoa eramaten duen pertsonak.

Laburbilduz, bi bezero mota edukitzearen ondorioz, bi harreman mota izango ditugu: herritarrekin harreman automatizatua (autozerbitzua) izango da, eta plastikoa birziklatzen dute enprekin, harreman zuzena.

